

ASUN RODRIGUEZ

## “Zahartzaroan aldaketak izaten ditu gorputzak, baina ikasi eta ondo bizi liteke horrekin”

■ Jubilatutxo eman zuen hitzaldia, 60 bat lagunengoa, transparentzia lagunduta.

ASUN Rodríguez hitzaldia eman zuen osteguneko Jubilatutxo eman, Zahartzaroan ematen diren aldaketei buruz. Asunek esan zuen orokorrean gorputza eta organuak txikitu egiten direla eta indarra galdu. Horren aurrean gomendio batzuk eman zituen aldaketei ahalik eta ondoen aurre egiteko. Rodríguez hitzetan zahartzaroa ez dago zertan triste bizirik, bizitzako beste fase bat dela hartu behar da kontuan eta aldaketa normal horiekin ondo bizi liteke, kontu eginda. Bukatzeko esan zuen, zahartzaroan inteligentzia eta kreatibitatea ez dela galtzen eta jendea gauzak egitea animatu zuen. □



Asun Rodríguez osteguneko emandako hitzaldian.

### EMANDAKO ZENBAIT GOMENDIO

**Ariketa fisikoa egin**, gehien bat ibili. Egutero ibiltzea gomendatu zuen.

**Tabakoa eta alkohola ahal dela ez kontsumitu**. Ez erretzea behintzat oso garrantzitsua dela esan zuen.

**Garbiketa zaindu**, eta egutero dutxatu, ondo lehortu eta krema hidratanteak erabiltzeko esan zuen.

**Arnasa hartzeko ariketak** egitea oso garrantzitsua dela esan zuen. Arnasa sudurretik hartu luze eta bota ahotik poliki, tripa nola ustutzen den nabaritzen dela.



Lau sagardogile sarituak goian eta sari emaleak behean.

## Herreroa txapelkun Txantxangorriko sagardo txapelketan

OSTEGUN gauean jokatu zen Txantxangorriko sagardo txapelketa eta Ergobiko Herreroak irabazi zuen 1.155 punturekin. Bigarren Bereziartua gelditu zen 1.150 punturekin; hirugarren, Barkaitzegi 1139 punturekin; laugarren, Rufino, 1.134 punturekin. Hamabost sagardotegietako sagardoak izan ziren txapelketan eta aurreko maila altukoak izan direla komentatzen zuen jendeak orokorrean. Guztira 160 lagun inguru izan ziren aurretik eta guzti horiek izan ziren sagardoak puntuatu zituztenak.

Txantxangorrikoa da Hernaniko elkarteetan egiten den lehenengo sagardo txapelketa eta orain Elur Txori, Peña Otaño eta Xalapartakoak etorriko dira. □

## FUTBOLA

### Erregional mailako taldeak gaur hasiko du liga, Zubietan

HERNANIKO Erregional mailako taldeak gaur hasiko du liga, Zarautz Bren kontra. Etxean jokatu beharreko partidua da, baina, Zubipe obretan dagoenez, Zubietan jokatu dute. Hernanik mailaz igotzeko helburua du aurtengo denboraldian eta horretarako liga ondo hastea oso garrantzitsua dela uste du David Muñoz entrenatzaile berriak. Gaur da partidua, arratsaldeko 16:00etan.

Bestalde, bihar hasiko dute Emakumezkoen Liga, 12:00etan Urnietan. Aldaketa asko izaten dituen taldea da hau eta ikusiko da aurreko zein mailatan aritzen diren futbolariak. Beste partidua:

| Gazteen liga nazionala |                         |
|------------------------|-------------------------|
| Athletic Hernani       | Bihar, 11:30, Lezama    |
| Gazteen 1 maila        |                         |
| Internacional Hernani  | Bihar, 12:00, Matagox.  |
| Kadeteen ohorezko liga |                         |
| Hernani-Texas          | Gaur, 17:30, Hernani    |
| Kadeteen 1 maila       |                         |
| Hondarribia-Hernani    | Gaur, 11:30, Ondarribia |
| Haurren 1 maila        |                         |
| Hernani-Kostas         | Gaur, 16:00, Hernani    |

### Musika Eskolako kurtso hasiera

HERNANI musika eskola publikoak astelehenean, irailaren 20an, hasiko ditu kurtso berriko klaseak. Aurtengo kurtsoan guztira 430 bat ikasle matrikulatu dira. Musika Eskolan 14 musika instrumentu ezberdin ikasteko aukera dago. □

### Kirol Elkarteak Batzar Orokorra gaur

HERNANIKO Kirol Elkarteak Asanblada Orokorra egingo du gaur. Aurreneko deialdia goizeko 10:00etan izango da, bigarrena 10:15etan eta hirugarrena 10:30etan. Sandiusterrin bilduko dira. □

**LAN ARRISKUEN PREBENTZIOERAKO GOI MAILAKO TEKNIKARI MASTERRA**

- ✓LANEKO SEGURTASUNA
- ✓HIGIENE INDUSTRIALA
- ✓ERGONOMIA
- ✓Urriak 1-ean

MATRIKULAZIO EPEA  
IRAILAK 20an bukatuko da.

**UROLALDE AKADEMIAN daukazun aukerak:**

- IKASTARROAK
- HIZKUNTZAK
- OFIMATIKA
- MEKANOGRFIA
- HAUR, GAZTE ETA HELDUENTZAT
- ENPRESEI SUBENTZIOAK LORTZEKO AUKERA

**UROLALDE, S.L. - Onddi kalea, 1. - Tel.: 943 33 37 11 - HERNANI**

**HERNANI HIZKUNTZAK**  
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiontzat  
*Advanced* eta *First*  
azterketak gaitzazteagatik.

**DATORREN IKASTURTERAKO**

**MATRIKULA ZABALIK**

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**CAPDEQUI ASTIGARRAGA SL**  
Zatoz ikustera gure modelo berriak!



**KIA Konzesionario Ofiziala**  
Donostia Ibilbidea 76 - Tlf: 943 550 495  
ASTIGARRAGA





Bildu Hernaniko kideak atzoko prentsaurrekoan, Biteri kultur etxean.

## Bildu Hernanik dio Ezker Batua “hernaniarrak nahasi nahian” dabilela, irtenbideak bilatu beharrean

■ Bildu Hernaniren botoak kontuan hartuta EBri zinegotzi bat dagokiola dio plataformak ■ Joxan Rekondo Alkateari oztopoak jarri izana leporatu dio.

BILDU Hernani plataformak prentsaurrekoa eman zuen atzo Biterin eta gaur egungo egoera salatu eta Ezker Batuari eta Joxan Rekondo Alkateari erantzun zioten. Plataformako kideen hitzetan, Ezker Batua hernaniarrak nahasi nahian dabil, “D’Hont legearen proportzionaltasun eza eta abarrek”.

### Zinegotzi bakarra

Bildu Hernanik dio Ezker Batuari zinegotzi bat dagokiola, Bildu Hernaniren botoak kontuan hartuta eta betiko formularekin, “eta ez hiru, alderdien legeak eman dizkion bezala eta ez bi, kalkulu berrien arabera”. D’Hont legeak izan ditzakeen akatsak eta Alderdien Legearen izaera ez direla parekatzeko modukoak esan zuen eta hartu ez duten zinegotzia eta “ez dagokiena” Bildu Hernaniren eskuetan uzteko eskatu zioten Ezker Batuari.

### “Jendearen erantzuna”

Ezker Batuak salatutako kartelak Bildu Hernanik ateratakoak ez direla esan zuen plataformak, “karakter jeneralekoak ziren”, baina, normala izan litekeela herriak horrela erantzutea “gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean”.

Udalean dauden partiduek “Partiduen legea akatatzeak” krispazioa ez duela jaitziko esan zuten eta “injustiziak” ez duela pakearen alde egiten. Arazoa ahaztu eta sintomak aislatzea leporatu zion Bildu Hernanik Ezker Batuari.

**Sei hilabete erantzunaren zai** Joxan Rekondo Alkateari ere erantzun zion Bildu Hernanik prentsaurrekoan eta “azken egunetan irudi ona eman nahian” dabilela esan zuten. Beren hitzetan orain 6 hilabete eskatu

**“Borondatea izan ezker badaude Bildu Hernaniri bere zinegotziak emateko aukerak, LOREGen 182.2 artikulua adibidez”**

**“Joxan Rekondok sei hilabeteren ondoren eman digu erantzuna, gure salaketa prentsan atera zen egun berean”**

zioten Udaleko Pleno eta Gobernu Batzarretako gai orden eta aktak eta Erregistro Generaleko sarrera eta irteerak bidaltzeko. Erantzuna, berriz, atzo bertan jaso zutela esan zuten. Bildu Hernanik dio informazio hori ez dela “delikatua, berak saldu nahi izan duen bezala”, informazio publikoa dela “edozein herritarrek eta kargu publiko batek zer esanik ez” eskatu lezakeena. “Eskatera sinple bati erantzuteko 6 hilabete pasatzea ez da legalitatea betetzea, horri oztopoak jartzea deitzen zaio” Bildu Hernaniren hitzetan, eta esan zuen salaketa prentsan atera zen egun berean jaso zutela erantzuna. Erantzuna baiezkota izan dela azkenean ere esan zuen plataformak.

### “Badaude irtenbideak”

Bildu Hernanik gogoratu zuen 3.661 boto lortu zituela Udal hauteskundeetan eta “esku-bide politikoa eskatu arren espainiar legalitatea aitzakiatzat hartuta” ari direla agintzen EA-EAJ eta EB. Esan zuten, borondatea izan ezker badaudela formulak Bildu Hernani Udaletxean egoteko, “LOREGen 182.2 artikulua” adibidez, Lizartzan proposatutakoa. □

## Chillidari buruzko 6 dokumental proiektatuko dituzte Zabalagan

■ Hilaren 25 arte egunero proiektatuko dituzte 6 dokumental hauek.

CHILLIDA-Lekun 6 dokumental proiektatuko dituzte egun hauetan Eduardo Chillidari buruz. Dokumental ziklo honekin Donostiako Zinemaldiarekin bat egin nahi izan du Chillida-Lekuk. Dokumental hauek egunero, hilaren 25a arte ikusteko aukera izango da, goizeko 10:45etan hasi eta 15:00ak arte.

Dokumental hauetako batzuk Madrilako Arte Ederretako *Cine Estudio Círculo*-n aurkeztu zituzten pasa den irailaren 7 eta 8an. Dokumental hauei buruz edo emandari buruz informazio gehiago nahi duenak telefono honetara deitu: 943-335962. □

### DOKUMENTALAK

**10:45etan, Retrato en casa.** Jose Julian Bakedano, 1981 (22 min.).  
**11:10etan, De Chillida a Hokusai: Creación de una Obra.** Susana Chillida, 1994 (31 min.).  
**11:45etan, Chillida.** Laurence Boulting, 1984 (60 min.).  
**13:00etan, Chillida, el Arte y los Sueños.** Susana Chillida, 1999 (54 min.).  
**14:00etan, Tindaya-Chillida: un Proceso de Creación.** Gonzalo Suarez, 1995 (7min.).  
**14:07etan, 5 Fragmentos.** Larry Boulting, 1984 (32 min.).

## Sei bikote 6garren Trikitixa Txapelketan, datorren igandean, Gudarien plazan

■ Eguerdiko 12:00etan hasiko da txapelketa ■ Hernanitik bi bikotek hartuko dute parte.

KRISKITIÑA dantza taldeak antolatuta, seigarren Trikitixa Txapelketa egingo da datorren igandean Hernanin, Sagar egunarekin batean. 16 urtez azpiko gazteentzat da eta guztira 6 bikotek hartuko dute parte, Azkoitia, Andoain, Aia, Itziar, Donostia, Tolosa eta Hernaniko trikitilariz osatuak. Bikote bakoitzak trikitixa, porrusalda eta Fandango edo Ari-Arin bat jo beharko ditu. Txapelketa eguerdiko 12:00etan hasiko da.

### Hernanitik bi bikote

Sei bikoteetatik bi dira Hernaniko soinu eta pandero jolez osatuak: bikote bat Añarbe eta Ainhitze Kalonje ahizpek osatzen dute, 15 eta 12 urtekoak. Bestea Aitziber Errazki eta Amaia Mujika, 13 eta 11 urtekoak.

Urteroko moduan Kriskitiña Dantza Taldeak antolatuta du Trikitixa Txapelketa, eta Udaletxeko Kultura Batzordearen, Oronaren eta Tolarea kofradiaren laguntza izan du. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 006666  
► Jokalari anonimoak: 943 331103  
► Alkoholiko anonimo: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738  
► Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Etxe lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goizetan egingo luke lana. Deitu: 689 144 881

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailer zerbitzua

**Ford FocusC-MAX**

Ford Focus, familiako kide berria

eta Ford gama guztia

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TEL.: 943 55 57 72  
ORDUTEGIA: ASTEAN 9-19 ETA 16-20 - LARUNBATETAN 10-19

**YGALDETXXO**  
Jatetxea

Bazkariak eta Afariak

Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**Telemar**  
Itxastele, S.L.

KLIMATIZAZIO  
ESKAINITZA

AIRE EGOKITUA  
Instalakuntza mixtoak  
Hotza eta beroa

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60